

TXOSTENA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Dena dela, artikulua horren 4. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, erabaki da S-90 ereduaren bidez aurkezten zen eragiketa lotuei buruzko informazioa eramatea 232 eredura ("Aitorpen informatiboa: eragiketa lotuak eta paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak"), non berariaz adieraziko baitira pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak. Bi helburu ditu horrek; batetik, irudi du egokiagoa dela informazio hori beste aitorpen berri batera eramatea, zeina bakar-bakarrik bete beharko baitute pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak egitera behartutako entitateek, eta, bestetik, lortuko da sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztearekin lotutako zeharkako karga fiskalak murriztea.

Arrazoi horiengatik, erabaki da paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketa eta egoerei buruzko informazioa tokiz aldatzea, izan ere orain arte sozietateei buruzko zergaren adierazpenean sartu da, eta hemendik aurrera eredu berri batean jasoko da ("aitorpen informatiboa: eragiketa lotuak eta paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak").

Horri dagokionez, ulertu behar da 232 eredua onesteko foru dekretuaren proiektua (232 eredua: "Aitorpen informatiboa: eragiketa lotuak eta paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak") bat datorrela urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 4. apartatuarekin (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera

ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira.

Iruñean, 2018ko otsailaren 15ean.

ARAUEN GARAPEN ETA AHOALKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Javier Zabaleta Zúñiga